

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 407

*EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 10ekoa, HABEko zuzendariarena, 2019. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen erregistroan eginiko alta-inskripzio eta bestelako oharpenak argitara ematen dituena.*

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen erregistroa arautzen duen Kulturako sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- 2019. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen erregistroan jasotako oharpenen zerrendak argitara ematea. Zerrendak ebazpenari atxikitako I., II. eta III. eranskinetan daude.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, bide administratiboa agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 10a.

HABEko zuzendaria,  
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

## I. ERANSKINA

## HOMOLOGATU MAILA AITORTU ZAIEN ZENTROEN ZERRENDA.

Izena	Erreg. zenb.	Aginduaren data
Arratiako AEK euskaltegia	222	2019-09-10

## II. ERANSKINA

## TITULARTASUN-ALDAKETA IZAN DUTEN ZENTROEN ZERRENDA

Izena	Erreg. zenb.	Titularra	Ebazpenaren data
Beasaingo udal euskaltegia	267	Beasaingo udala	2019-06-27
Zornotza udal euskaltegia	28	Amorebieta-Etxanoko udala	2019-12-19

## III. ERANSKINA

## EGOITZA SOZIALA ALDATU DUTEN ZENTROEN ZERRENDA

Izena	Erreg. zenb.	Helbide berria	Ebazpenaren data
Ermuko Kaltxango AEK euskaltegia	127	Zeharkalea, 16-behea 48260 Ermua	2019-10-08
Debagoienako AEK euskaltegia	207	Iturriotz, 21-behea 20500 Arrasate	2019-10-10